

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Elkartek ezinbestekoak dira gure zerbitzua bezeroei ahalik eta hoberen eskaini ahal izateko. Gure kasuan, enpresen arteko elkarteaz gainera, gure artean ere itunak egin beharko ditugu, gure arteko komunikazioa eta harremanak onak izan daitezen.

Lehenik, hornitzaileekin kontaktuan jarri gara. SportsArt enpresak elektrizitatea gordeko duten makinak saldu dizkigu, 25.000€-ren truke. Beste makinak eta baliabideak eskuratzeko, ordea, GymCompany enpresa erabiliko dugu, eta hauek behar ditugun baliabideen prezioa 15.000€-tan utzi digute. Makina hauek nahiko garestiak dira, baina kalitate onekoak dira. Gainera, enpresa hauek zuzenean bidaliko dizkigute baliabide guztiak, eta honek lana errazten du.

Gure makinaren bidez lortutako elektrizitatea saldu behar dugu. Hau, espezifikoki Nexus Energia enpresari salduko dugu; izan ere, elektrizitatearen truke kantitate ona ordaintzen digute eta beraiekin kontaktuan egotea oso erraza egiten da, eta hori arazoren bat baldin badago ondo dago. Elektrizitatea saldutakoan lortutako diruarekin ahal izango dugu gimnasioko gastu batzuei aurre egin: ura, soldatak, argia... Hau da, autofinantziatu egingo gara.

Gure gimnasioa lokal batean irekiko dugu. Horretarako, GOIEKIk, Ordizian dagoen enpresa batekin, kontaktuan jarri gara, eta hilabetean 30€ ordaindu behar ditugula informatu digu. Hau aukera hobereana dela deritzogu aurkitu dugun merkeena izan baita.

Bestalde, 5.000€-ko mailegua eskatu behar izan dugu gure proiektuarekin hasi ahal izateko. Hau Laboral Kutxari eskatu diogu; izan ere, interes baxuena du beste bankuekin konparatuta, %2,5ekoa, hain zuzen ere.

Enpresa aseguratuta behar dugu ere, arazoren bat egongo balitz. Horregatik, Lagun Arorekin akordio batetara iritsi gara. Adierazi digute 1200€ ordaindu beharko ditugula urtean. Erabaki hau hartu dugu aurkitu dugun merkeenetakoa baita.

Gainera, publizitatea Ordizian eta Beasainen ere egingo dugu. Kartelak inprimatzeko Aresti dendarekin kontaktuan jarri gara, zeina adierazi digun 150 kartelen truke 2,75€ ordaindu behar ditugula. Horrez gain, Goierri Irrati

Telebistaren bitartez ere publizitatea egingo dugu, 200€ kostatuko zaizkigun iragarki batzuen bidez. Kartelen diseinuari dagokionez, Zuzen Zerbitzu Grafikoak enpresak egingo digu 50 €-rengatik. Hornitzaile hauek aukeratu ditugu deskontu berezi batzuk egin dizkigutelako.